

BALIO PROPOSAMENA:

Gure enpresak herritarrei aisialdirako lokal bat alokatzen die baina denboraldi baterako izan beharrean, ordu batzuetarako bakarrik (arratsalde bat, adibidez). Proiektu honekin, gaur egun dagoen egoeraren aurrean, gazteen aisialdiariako beharra asetzen da, betiere modu zentzudun eta seguruan. Eremu hori gure gustura eta bezeroen eskariaren arabera egokitu dugu, denbora pasatzeko toki eroso bat izan dadin. Adibidez, sofa batzuk, janari eta edari makinak (edari alkoholduna 18 urtez goikoentzat bakarrik), proiektore bat ordenagailu batekin (kirola eta pelikulak ikusteko, esaterako), mahai jokoak, musika ekipoa, WI-FI konexioa...

Gainera, gure lokala COVID-19aren baldintzen arabera araututa dago. Hau da, unean indarrean dauden mugikortasun baldintzak, elkartzeko pertsona kopurua, ordutegiak... zorrotz errespetatzen ditugu. Horrez gain, bezero bakoitzaren aldaketarekin lokala guztiz desinfektatzen eta aireztatzen da.

Idea berritzailea da, izan ere, gaur egun antzeko zerbitzua ematen duten lokalak daude, baina denboraldi baterako alokatzen dira eta zailtasun ugari izan ohi dituzte horretarako. Gure kasuan, bezeroek ez dute hilabetero ordaintzeko ardurarik hartzen, erreformak ere ez dituzte egin behar, prezioa baxuagoa denez, jende gutxiren artean alokatu ahal izaten dute eta zerbitzua orduka antolatuta dago.